

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

34/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Arabako zerga-araudia ebaluatu eta aldatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

34/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Arabako zerga-araudia ebaluatu eta aldatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute konpromisoa dutela 2020. urtean azken zerga-erreformaren ebaluazioari ekiteko eta, beharrezkoa bada, egin beharreko aldaketak egiteko, betiere beste lurralde historikoekin izan beharreko harmonizazioa eta koordinazioaren esparruan.

2. Arabako Batzar Nagusiek uste dute Arabako zerga-araudia aldatzeko edozein proposamen behar dela Arabako Batzar Nagusietan eztabaidatu eta, hala badagokio, onetsi.

3. Arabako Batzar Nagusiek uste dute zerga-arloko eguneraketak egin behar direla kalitateko zerbitzu publikoen iraunkortasuna bermatze aldera eta Arabako Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoa eta enpresen lehiakortasuna sustatze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 23a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA